

HERNANIK

kronika

2003 urtea
Urriak 20
Astelehena
Alea: 917
www.kronika.net



Euripean gaztainak erretzen atzo Ereñotzuko plazan. Zenbaitek alde egin zuen euriagatik, baina, koadrila dezentea gelditu ere egin zen.

Euripean erre eta jan zituzten gaztainak Ereñotzun

■ Aste osoan egongo dira ekitaldiak ■ Kutxidazu Bidea Ixabel antzerkirako sarrera denak saldu dira.

EREÑOTZUKO kultur astekak busti bat hartu zuen atzo arratsaldean euria gerora gelditu bazuen ere. Artisau azoka zeuden estalpe bakanetan egin eta jendea ere ahal zuen moduan babestu zen euritik. Hala ere, gaztaina jana eta sagardo probaketa egin ziren eta jendeak ondo eutsi zion urteroko ohiturari. Antolatzaileek auzoan leku estali baten beharra nabarmendu zuten berriz ere, "beti egural-

diaren menpe geratzen baita hemengo festa".

Bertso afari ona eta luzea
Larunbat gauean bertso afaria egin zuten Maialen Lujanbio eta Andoni Egañak Ur Mia elkartean, eta gauerdian hasita ordu txikiak arte aritu ziren kantuan. Ia hiru orduko saioan gai askori buruz kantatu zuten eta bertso dotore asko ere izan ziren. Entzu-leak oso gustora gelditu dira,

bertso afaria aurten berreskuratu baitute Ur Mian eta maila altukoa izan baita.

Igandera arte
Bihar diapositibak, etzi Felix Zubia sendagile zarauztarraren hitzaldia, ostiralean pailazoak eta larunbatean partxisa egongo dira. Igandean, berriz, Kutxidazu Bidea Ixabel antzerkiana, eta dagoeneko sarrera guztiak saldua daudela jakin arazi dute antolatzaileek. □



Maialen eta Egaña ia hiru orduz aritu ziren larunbatean.



Euria medio, elizako arkueetan sartu zen jendea atzo arratsaldean.

EGITARAUAK

Asteazkena: Diapositibak. GR-11
Mediterraneotik Kantaurira. 20:30.

Osteguna: Hitzaldia, Elikadura eta Osasuna. Felix Zubiak emana. 20:00.

Ostirala: Pailazoa, 18:00etan plazan. Patxin eta Potxin.

Larunbata: Partxis Lehaketa, 17:00etan.

Igandea: Antzerkia. Kutxidazu Bidea Ixabel, 20:30etan elizan.

Dobera Euskara Elkarrean argazki zaharrekin erakusketa jarri du Biterin

DOBERA Euskara Elkarteak Hernaniko historiari buruzko liburua argitaratuko du gutxi barru. Horren bueltan, bihar argazki zaharren erakusketa jarriko du Biteri kultur etxeen. Denera 72 argazki jarriko ditu Doberak XX-garren mendeko Hernaniren historia grafikoa biltzen dute, mende hasieratik 80garren hamarkadara arte: bizimodu, giro politikoa, ohiturak, pertsonaiak... Argazkiak digitalean tratatuta daude, kalitatea hobetzeko.

Erakusketa azaroaren 3a arte egongo da irekita, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte. □

Gaur pasa litzke epailearen aurretik zortzi atxilotuak

MARTIN Ugalde Kultur Parkea osatzen duten enpresen kontrako operazioan atxilotutako Juamari Larrarte hernaniarra eta beste zazpi kideak gaur pasa litzke epailearen aurretik, bost eguneko inkomunikazioa bukatuta. Hainbat talde eta erakundek kezka agertu dute inkomunikazio egoeran atxilotuak "torturatua izateko arriskua" dagoelako. Gaur 2 kontzentrazio egingo dira Hernanin Euskalgintzako taldeek deituta, polizia operazioa salatu eta atxilotuak askatzea eskatzeko. 12:00etan eta 20:00etan, plazan. □

Ezker Abertzaleak Herri Batzarra deitu du

HERNANIKO Ezker Abertzaleak Herri Batzarra deitu du biharko. 2003-2004 ikasturteko ildo politikoa eztabaidatu eta finkatzeko bilera da. Bihar, astearteak, arratsaldeko 20:00etan, Biteri kultur etxeen. □

AMEGAR

Etxe tresnak
Altzariak



Elektrogailuak
TB- Bideoak-
HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 30



mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Hernaniko Kronikako laguntzaile izan nahi?

Urtean 30 eurogatik egunero kronika dohainik

Telefonoz hartuko dizkizugu datu guztiak:

943 330899 - 656 703814

Bonoa zeuk bete nahi baduzu, jaso leku hauetan: Conde (Urbietza), Zinkoenea, Iruretagoiena (Kale Nagusia), Kronika (Larramendi 11) eta Dobera (Larramendi 11)

■ ERRUGBIA



Mitxelena urrutitik golpea botatzen eta ekipoa zai.

Hernanik irabazi, bukaean behera egin arren

■ 35-19 nagusitu zitzzion Zaragozako Fenix taldeari, atzo Landaren.

HERNANIK Fenix taldearen kontra jokatu zuen atzo Zubipen eta ligako bigarren partidua ere irabazi egin zuten hernaniarrek. Lehen denboran 18-0 jarri zen aurretik etxeko taldea eta partidua ez zuen kolorerik izan. Bigarren denboran, ordea, tentsioa galdu zuen Hernanik eta Fenix taldeari partiduan sartzeko auke-

ra eman zion. Bukaean 35-19 irabazi zuen etxeko taldeak.

Hernanik 4 ensaio egin zituen eta 3 transformazio. Horrez gain, beste 3 golpe ere sartu zituzten. Ensaioak: Larranagak 2, Mitxelek 1 eta San Migelek 1. Transformazioak: Mitxelek 1 eta Iraitzek 2. Eta golpeak, berriz, Mitxelek 2 eta Iraitzek 1.

Bitik bi

Hernanik ligako bi partiduak irabazi egin ditu eta oraingoz denboraldirako dauzkan asmoi eutsi egiten die Landareko taldeak. Atzo ikusitakoaren arabera, ordea, beste taldeak ere indartu egin dira, jende berria ekarrita, eta ez dago jakiterik zein maila izango duten.

□



Sarituak, Urretxa Mikologia Elkarteko kideekin eta perretxiko aditurekin batean, atzo plazan.

Marisol Yabenek irabazi du perretxiko argazki lehiaketa

PERRETXIKO argazki lehiaketako sariak banatu zituzten atzo Gudarien plazan, perretxiko erakusketan. Marisol Yaben argazkiak juzkatu dituzte onenak; bigarren, Jesus Azkue gelditu da eta hiruga-

ren Juan Jose Agirre. Diapositibarik onenaren saria, berriz, Maite Salinasek jaso du. Diapositibak bihar eta ostegunean proiektatuko dituzte Biterin, arratsaldeko 20:00-estatik aurrera.

Erakutsi eta probatu
Atzo perretxiko mordoa jarri zuen Urretxa elkarteko plazan eta jende asko ibili zen onak eta txarrak zein ziren ikusten. Eguerdi aldera perretxikoak probatzeko aukera ere izan zen.

KIROLA

ASTEBURUKO EMAITZAK

| FUTBOLA | Taldeak | Non | PELOTA | Gipuzkoako Txapelketa | | |
|------------------|-----------------------|-----|------------|---------------------------------------|-------|--|
| Goren. | Berio-Hernani | 0-2 | Kadeteak | Ebar/Ezeiza-Fernandez de Garoña | 2-22 | |
| Emakum. | Hernani-Mutriku | 1-3 | Paleta jub | Lucas-Gerra/Jauregi-Lujanbio | 30-15 | |
| Gaz. Euskal liga | Hernani-Amorebieta | 1-1 | Jubenilak | Ramos-Huizi / Lazkao | 11-22 | |
| Gaz. 1 | Aldapetarrak-Hernani | 5-3 | Nagusiaik | Alvarez-San Sebastian / Añorga | 8-22 | |
| Kad. Oh. | Hernani-Eibar | 3-1 | Kadeteak | Murumendi-Arregi | 22-5 | |
| Kad. 1 | Hernani-Trintxerpe | 1-0 | Jubenilak | Zurutuza-Aurrera | 7-22 | |
| Haur Oh. | Tolosa-Hernani | 7-1 | Nagusiaik | R. De Galarreta-Irazustaba/ Murumendi | 7-22 | |
| Haur 1 | Internacional-Hernani | 5-1 | ERRUGBIA | | | |
| BOLEIBOLA | | | Euskal Li | Hernani-Fenix | 35-18 | |
| Euskal Li | Hernani-Santander | 3-0 | | | | |

■ BOLEIBOLA

Mutilek 3-0 irabazi Galdakaori eta neskek 0-3 galdu Santanderen kontra

HERNANIKO mutilen taldeak sailkapeneko goiko postuetan ibiliko direla erakutsi zuen larunbatean eta Galdakaoko talde gogorrari ez zion aukerarik eman. Lehen jokoan izan zuen lanik haundieta Hernanik eta 26-24 irabazi zuen. Beste biak erraz atera zituen aurrera, 25-14 eta 25-16, nahiz eta Galdakaok

ere partidu ona jokatu. Goiko postuetan dago Hernani, 2 partidu irabazita eta bakarra galdu.

Neskek ezin

Nesken talde gazteak ezin izan zion Pereda Santanderri irabazi eta 0-3 galdu zuen. Jokoak: 12-25, 19-25 eta 10-25. □

■ FUTBOLA

Gorengoak irabazi, eta ondo jokatuta

GORENKO taldeak etxetik kanpora irabazi zuen atzo 0-2 eta taldeak itxura oso ona emanda gainera. Jon Loran entrenatzailea oso gustora zegoen taldeak erakutsitako jokoarekin eta zulotik irtezko lehen urratsa izan litekeenaren garrantzia nabar-

mendu zuen. Datorren asteburuaren Zestoa hartuko du Hernanik Zubipen.

Emakumezko ligan ezin

Emakumezko ligako taldeak 1-3 galdu zuen atzo Mutrikuren kontra eta irabazi ezinda segitzen dute. □

■ SASKIBALOIA

Hernanik egurra eman zion Gros B-ri

HERNANIKO taldeak garaien erraza lortu zuen atzo Donostian, Gros B Xake taldearen kota. 83 eta 55 irabazi zuten

hernanirek eta erakutsi zuten ondo ibili litezkeela aurtengo ligan, maila honetan lehenengo urtea badute ere. □

Trukeari buruzko astearen barruan hitzaldia gaur Andragoton

■ Andragoton, arratsaldeko 19:30etan da.

TRUKEARI buruzko astea antolatu du Andragotok eta gaur hitzaldia emango dute Lasarte-Oria Bai elkarteko kideek. Bihar beste hitzaldi

bat izango da eta Eduardo Troncosok hitz egingo du "Trueque: teoria y practica" gaiaren bueltan. Bi hitzaldiak 19:30etan dira. □

JUBILATU ETXEA

Akordeoi kontzertua eta Larramendi Korua ostegunean

ASTE honetan Jubilatu Etxean kontzertu ederra entzuteko aukera izango da. Ostegunean, akordeoi kontzertua eta Irungo

Larramendi korua izango dira, arratsaldeko 19:30etan. Bestalde, gaur Azagrara joango dira egun pasa. □

ZERBITZUAK

+ FARMAZIAK

| TELEFONOAK | ASTELEHENIA | ASTEARTEA |
|-------------------------------------|-----------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------|
| ► Taxiak: 943 550093 | ► Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738 | ► Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793 |
| ► Udalzaingoa: 943 333288 | ► Gauez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774 | ► Gauez: Gil Lasarte. Nagusia 24 ☎ 943 361529 |
| ► DYA: 943 464622 | | |
| ► Anbulatorioa: 943 006666 | | |
| ► Jokalari anonimoak: 943 331103 | | |

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko, goiz eta arratsalde: 07:30etatik 11:00etara eta 16:30etatik 19:00etara : 658 73 88 32